

A vibrant rainbow flag is the central focus, held by a hand in the foreground. The flag's colors are bright and saturated, with visible brushstrokes or folds. In the background, a large, diverse crowd of people is visible, some looking towards the camera, others looking away. The scene is set outdoors, possibly during a festival or parade. The overall mood is celebratory and inclusive.

TOKIKOM **Pil-pilean**

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko otsaila • 300. alea

Lekukoa guztiona da

ASTE BURUETAN

Eguerditan

rabak, txanpiak, olagarroa, patata minak eta kroketak (etxera eramateko ere bai)

Gauetan

ogitartekoak eta plater konbinatuak

Kriantzak aukeran

Pierola
Beronica
Villareal
Viña de oja



Santa Ana, 12

Tel. 943 75 13 83

OSTEGUNETAKO PELIKULAK

MAGICAL GIRL

MARTXOAK 12



Urtea: 2014
Iraupena: 127 min
Herrialdea: Espainia
Zuzendaria: Carlos Vermut

LABURMETRAIAK

MARTXOAK 26



EUSKARAZ
Urtea: 2014
Iraupena: 90 min
Herrialdea: Euskal Herria

LA ÍSLA MÍNIMA

APIRILAK 9



Urtea: 2014
Iraupena: 105 min
Herrialdea: Espainia
Zuzendaria: Alberto Rodríguez

NEGOCIADOR

APIRILAK 23



Urtea: 2014
Iraupena: 80 min
Herrialdea: Espainia
Zuzendaria: Borja Cobeaga

FIVE DAYS TO DANCE

MAIATZAK 7



DOKUMENTALA
Urtea: 2014
Iraupena: 77 min
Herrialdea: Espainia
Zuzendariak: Rafa Moles eta Pepe Andreu

RELATOS SALVAJES

MAIATZAK 21



Urtea: 2014
Iraupena: 119 min
Herrialdea: Argentina
Zuzendaria: Damian Szifran

AHAL DUGUN guztia

Guraso askoren ahotan dagoen kezka da seme-alaben lehen hizkuntza euskara izanik, zergatik egiten ote duten hainbeste erdaral!

Zela ulertarazi euskaraz hitz egitea oso garrantzitsua dela gure hizkuntza mantentzeko? Zela erakutsi euskara maitatzeko? Zela lagun batzuekin beti erdaraz badihardute? Zela indartu jarrera baikor batekin lagunekin giro euskaldunean bizitzeko? Zela telebistan gehien gustatzen zaiena erdarazko kateetan badago? Zela aldatu ohitura horrek? Baliagarria al da lagunaren artean erdaraz dihardutenean "euskeraz egin eta euskeraz egin!" agintzea behin eta berriz?

Zenbat galdera, zenbat zalantza... zenbat beldur!

Erdararen eragina oso handia delako, txikiak egiten gaituelako, gaur eguneko gazteak denok hitz egiten dakigulako eta euskaraz ez dakien norbait gure artean badago, euskaraz egiteko OSO MOTIBATUTA egon behar garelako...


Eskoletan eredu bat edo beste hautatzeaz gain, beste hainbat ekintza egiten ahalegindu behar ginateke gurasook.

Lehenik eta behin, etxeko eredu funtsezkoa dela pentsatzen dut, horregatik, euskaraz dakiten gurasoek euren artean egiten ez badute, seme-alabek euskararekiko duten pertzepzioan eragin dezake; euskara umeendako bakarrik dela pentsa dezakete, gizarteratzeko eta bizitzeko ez duela balio sines dezakete... ikasteko bakarrik balio duela barneratzea.



Myriam Goenaga

"Gauean, euskarazko ipuin zoragarri eta magiko bat irakurtzea, gauzarik errazena eta atseginena ere izan daiteke"



Gauean, umeekin gauden momentu goxo horietan euskaraz ipuin zoragarri eta magiko bat irakurtzea, egin dezakegun gauzarik errazena eta atseginena ere izan daiteke, eta, aldi berean, euskararekiko jasotzen duen lotura positiboa izango da dudarik gabe!

Bestalde, oso garrantzitsua iruditzen zait aisialdiko jardunetan, kiroltan, musikan, dantzan eta abarretan, euskaraz egiteko aukera izatea. Horrela gozatuko baitute hizkuntzarekin.

Gure hizkuntza gutxiengo batena izanda, aldi berean oso handia dela konturatu nintzen Kike Amonarrizzen hitzaldian, berak esaten zuen moduan "hainbeste urtetan zapalkuntza eta zailtasun handiak jasan arren, gaur egunera arte irauteko gai izan gara" eta garbi dagoena zera da: gure seme-alabak gure etorkizuna direla eta beraiek euskaldun baldin badira, ez bakarrik ikastolan ikasi dutelako baizik eta bihotzean daramatela, etorkizunean euskaraz biziko gara!

Hori dena, etxeko giroan edota lagun artean naturaltasunez, informal egin daiteke, esfortzu moduan hartu gabe, poliki-poliki... ohiturak aldatuz!

Horregatik eta mila gauza gehiagoren-gatik, goazen ba abestera, dantzatera, laztantzera, maitatzera edota haserretzera euskaraz, ahal bezain beste! ... Umeek uler dezaten gure kultura zaintzea nahi badugu, euskara dela lehenengo gauza. Gure espresatzeko modua dela eta bere xarma eta ukitu exotikoa ere badauzkala. JARDUN BA!

Euskalzaletasunaren alde:



IPARQUI CHURRUARTE, S.L.

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Sorraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Urribetabarria **Maketazioa:** Oier Larreategi
Azala: Ferman Oregi **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Zozketa

Harrera elkartearen zozketa



Saria: EIBAR-ATLETIC derbirako bi sarrera eta 200 €.
Zk saritua: 848 (Otsailaren 22an ONCEko zenbakia)
Saritua: Javi Perez.
Gure eskerrik beroena S.D.EIBAR taldeari eta laguntza eman diguten guztiei.



Bittartetik

Eneko
AizpuruBizitza aldatu
didaten egunak

Denok daukagu egun bat goitik behera apurtu eta bizitza erabat aldatu diguna. Nere eguna 1994ko azaroaren 17a izan zen. Dei batek osaba tiroz hil zutela eta izeba ospitalean tirokatuta zegoela jakinarazi zigun hura.

Zeinek esango zidan 21 urteren ostean beste dei batek poztasun-shock egoeran lagako ninduela. *Zain dago ama, zain aita* abestia zenbat aldiz ez ote dugu abestu etxean, gabonetan, egun berezietan... Joan zen astean espetxean kantatu genuen.

Dispertsioa distantzia da. Milaka kilometrotakoa, 21 urtetan zehar. Espainiako espetxe mendekatzaile eta makurrak ezagutu ditu/ditugu. Espetxe horietara heltzeko bide luzeak, euri, elur, laino, beldur, lan egun galdu eta milaka eta milaka eurotako gastuak. Eta baten batek galdetzen didanean zer suposatzen duen dispertsioak nere bizitzan, burura datorkidana da: Asier eta Iñaki.

Bi persona harrigarri, jator, alai, maitagarri... Espainiako gobernuak, mendeku gosez, Lurdes espetxe hartara eramanez izan ez balu egun hartan Avilarako bidean behar ez zutenak. Maitasun hitza hizki handiz idatzita laga zuten.

Elkartasunetik konpromezura leloaren adibidea da gure herria. Dispertsioak ez du lortu bere helburua. 21 urtean espetxetik espetxera ibili gara Espainiako punta batetik bestera, beti bere ondoan.

Preso baten senide izateari lagako diot, baina gainerako euskal preso politiko denak askatu arte ez naiz aske sentituko.



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Denda
-TIENDA ESPECIALIZADA-

Favier Alberdi

ERRAZAL KALEA, 24
TEL. 943 75 1932

“Pasarela handiagoetan desfilatzea gustatuko litzaidake”

Andoni Rico (1994, Soraluze)
Modeloa



Andoni Rico Cibeleseko pasarelan desfilatzen. Iturria: etxeberria.com

Mercedes Benz Fashion Week-en, lehen Cibeles zenaren pasarela gainean desfilatu du Andoni Ricok (1994, Soraluze), Roberto Etxeberria diseinatzaile eibartarraren gidaritzapean. Familiak animatuta hartu zuen parte edertasun lehiaketa batean eta, urtebetean, El Corte Inglesetik Cibelesera egin du salto. **Etxeberria diseinatzailearentzat desfilatu duzu. Nola izan zenuten elkarren berri?**

Malagan “Guapo de España” lehiaketan hartu nuen parte eta plaentxia.com webgunean eman zenuten lehiaketaren berri. Jone Iñarra Roberto Etxeberriaren koinata da eta berak animatu zuen ni ezagutzera. Etxeberriak argazkiak ikusi eta astebetara deitu zidan, Bilbon egingo zuen hautaketa-proban parte hartzera gonbidatzeko. Ondo irten zitzaidan, gustatu egin zitzaion eta hautatu egin ninduen.

“Roberto Etxeberriak asko arriskatu zuen eta oso eskertuta nago”

Aukera ausarta!

Pentsa! Asko arriskatu zuen Roberto Etxeberriak, ni moduko modelo hasiberri bati Cibelesen bere jantziak erakusteko aukera emanez, eta oso eskertuta nago.

Hasieratik lagun-arteko tratuan aritzeko eskatu zidan eta bere zintotasunak kontzentzitu ninduen.

Modelo moduan, aldaketarik suposatu du zuretzat?

Etxeberriarentzat lana egiteak eta Cibelesen aritzeak modelo moduan ahalduzko balio izan dit. Donostiako agentzia batean dihardut modelo izateko ikasketak egiten eta, askotan, jarrerak lantzen ditugu, jendearekiko, gure buruekiko... baina publikoaren aurrean jarri eta flash artean egon arte ez duzu zure burua noraino heltzeko gai den probatzen. Nire bizitzako esperientziarik aberasgarriena izan da.

“Cibelesen aritzeak modelo moduan ahalduzko balio izan dit”

Nolako da egun bat MBFWn? Backstage-a?

Dena handia eta profesionala da han: aldagelak, disenatzaileak, argazkilariak... hemengo desfileetan ez bezala, Cibeles futbol zelai moduko bat da, publikoa pasarelaren gainetik dago eta horrek inpresio handia egiten du. Lehen entsegua desfilea hasi baino lau ordu lehenago egin genuen eta ondoren makillaje eta pelukeria saioak hasi ziren. Santa Age-

dako doinuekin itxi zuen Etxeberriak desfilea eta momentu hori euskaldunontzat osoberezia izan zen. Ostean, lunch-a izan genuen eta photocall-ean parte hartu genuen Eibartik eta ingurutik etorritako familia eta lagunekin.

“Hankak lurrera ondo lotuta ditut”

Zure ingurukoek zela daramate modelo izatearena?

Oso pertsona lotsatia izan naiz beti eta eurek animatuta nago modeloen munduan. Gurasoek badakite lanbide hau oso gorabeheratsua dela, gaur lana daukat, baina batek daki bihar zer gertatuko den... Horregatik ikasketekin jarraitzea animatzen naute. Egia esan zorte handia daukat, jarraitzaile leialak direla erakutsi didate beti.

Etorkizunerako zein espektatiba duzu?

Kasualitatez sartu nintzen honetan eta hankak lurrera ondo lotuta ditut, badaikit zaila dela baina ilusionatuta nago, eta etorkizunean desfile garrantzitsuetan parte hartzeko aukera bila aritu nahi dut. Madril edoartzelona moda agentzietan izena eman eta pasarela handiagoean desfilatzea gustatuko litzaidake, Milanen esate baterako.

IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebiea
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Autobus zerbitzu hobea martxoaren 1etik aurrera



Aldundiko garraio zuzendaria, Debabarreneko ordezkariekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu ditu eskualdeetako autobus zerbitzuak berritzeko azken urte eta erdian garatutako parte-hartze prozesuaren emaitzak. Guztira 5.000 ekarpen jaso dituzte, Debabarreneko lehenengo fasean

500 eta bigarren fasean ia 200. Aldundiak azaldu duenez, eskaeren % 75 bete dira eta martxoaren 1ean (domekan) jarriko dira martxan.

Linea berriak eta maiztasun handiagoa Soraluzeri dagokionez, Soraluze eta Ondarru lotzen dituen autobus zerbitzuak bi orduroko maitasuna izango du. As-teburuetan ere zerbitzua bermatuta egongo da, eta urteko hilabete guztietan zuzeneko lotura gehiago izango dira Elgoibarrekin, Mendaroko ospitalearekin eta Debarekin. Eibar-Arrasate linean orduerdiro egongo dira autobusak, baita Gasteizera joateko ere. Barixaku gauetan Soraluzetik Eibarrera joateko autobusa 01:00etan hartu ahal izango da eta Eibartik Soraluzera 00:30ean.

Emakumearen ahalduntzea sustatzeko egitaraua

Umore-terapia tailerra, pala txapelketa, Pintxo-Klown ikuskizuna eta haurrei zuzendutako "Do, re, mi, golku bete ipuin" ipuin-kontaketa antolatu dituzte aurten martxoaren 8ari begira. Egun horretan "Euskal Herria parrakidetasunez eraiki" lemapean elkarretaratzea egingo da Plaza Barrixan, ondoren, poteo-feminista egingo dute herriko tabernetan zehar. Martxoaren 13an "Macho-Maris" antzerkia eskainiko du Zipriztintzen antzerki taldeak, 22:15ean antzokian.



Ekonomia soziala eztabaidagai gaztetxean

Martxoaren 3tik 12ra ekonomia-sozial eraldatzaileari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Soraluzeko Gazteriak. Jardunaldiotan lau puntu jorratuko dituzte eta lehenengo saioan ekonomia-sozial eraldatzailea izango dute hizpide. Martxoaren 5ean, alternatiba ereduaren inguruko eztabaida egongo da; martxoaren 9rako ekonomia feministari buruzko hitzaldi-mahaingurua antolatu dute eta martxoaren 12an, ekonomia globala, geopolitika, egungo egoera eta aukera erreal posibleak izango dituzte aztergai. Ostean merienda eskainiko diete bertaratutakoiei eta Bidelapurak taldeak kontzertua eskainiko du.

FotoNotizia



Ingelesa praktikatzeko taldeak

Orain dela hilabete batzuk, herritar batek proposamena egin zion Udalari ingelesa praktikatzeko taldeak osatzeko. Udalak herrian dauden beste hiztun komunitate batzuen laguntzarekin mintza-taldeak martxan jartzeko aukera aztertzeari ekin zion. Dagoeneko, bi mintza-talde jarri dituzte martxan, gaitasun maila ezberdinetakoak. Mintza-talde bakoitza asteko egun batean batzen da Etxaburuetako Elkartegian eta bakoitzak dakarren gaiaren inguruan berba egiten dute ordubetez. Interesa duenak taldekideren batekin berba egin edo Alkarrekinen bitartez eman dezake izena, udaletxera joanda.

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08



Itxaropenak junta berria du

Otsailaren 17an egindako ohiko batzar nagusian aukeratu zituzten juntakide berriak: Rosarito Oruesagasti, Montse Alvarez, Juanito Unamuno eta Luis Mari Kortabarria. Bi urteko epean elkartea gobernatzeko konpromisoa hartu dute, lehenagotik dauden beste juntako lau kideekin batera. Epe motzean, Korrikan parte hartu eta Iratxeko santutegia bisitatu dutela aurreratu dute.



Asanblada irekia Kukumixon

Asanblada irekia egingo du Kukumixok martxoaren 13an, eta bertara gonbidatu nahi dituzte 17 urtetik goragoko gazteak, bereziki "aisialdi hezitzailearen bueltan ikasi, gozatu eta esperientziak elkarbanatu" nahi dituztenak. Aipatu dutenez "Kukumixoko ezagutu eta partaide bihurtzeko lehenengo pausua litzakete", baina, aldi berean, aisialdi taldearen inguruko informazioa helaraztea ere badute helburu, egiten duten lana bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiz. Asanblada arratsaldeko 18:30ean hasiko da, Gaztetxokoan.



37 Tortura salaketa dokumentatu dituzte herrian

Eusko Jaurlaritzak 1960tik 2013ra bitartean gertatutako tortura kasuak aztertzeko oraintxu martxan jarri duen egitasmoaren harira, herritar talde batek soraluzetarrei dagozkien hainbat kasu dokumentatu ditu. 93 atxiloteta dokumentatu dituzte eta hogeitamazazpi tortura salaketa: "ezin izan dugu atxilotutako pertsona guztiekin egon, batzuk kanpoan bizi direlako, beste batzuk zendu direlako... Berrogei pertsonarekin egon gara eta horietatik hogeitamazazpi salatu dituzte torturak". Txostena Jaurlaritzara bidali dute Pako Etxeberria forentsearen taldeak aztertu ditzan.

Tortura testigantzak

Julen Arzuaga durangarrak, Tortura Euskal Herrian liburuaren egileak, Frankismo garaitik gaur arte torturak izan duen bilakaeraren berri eman zuen Sorkutuk antolatuta egin zen hitzaldian. Eñaut Aiertzaguenaren iurretarrak urtebete egin zuen gartzelan Segikoa izatearen akusaziopean eta atxiloaldiko inkomunikazio egunetan Madrilan jasandako torturen



Mikel Alberdi, Eñaut Aiertzaguenaren eta Julen Arzuagaren hitzaldian.

berri eman zuen. Mikel Alberdi Orbe herritarrek lehen aldiz eman zuen publikoki bere testigantza: "1984an Guardia zibilak Intxaurrondora eraman ninduen atxilotuta. Belauniko jarri ninduten bañera baten aurrean, begiak estalita, eta behin eta berriz sartu zidaten burua, egin ez nuen zerbaiten aitortpena sinatu nezan. Hamargarrenean konortea galdu nuen. Ordu batzuetara esnatu nintzen eta tente egon ezinik etxeratu nintzen". Testigantzen bideoak ikusgai daude Plaentxia.eus-en.

Lurdes Txurruka irailean aterako da

Lurdes 1994ko azaroan atxilotu zuten Loian, ETAko kide izan eta hainbat ekintzatan lagundu izanaren akusaziopean. Sarek jakinarazi duenez irailaren 2an aterako da gartzelatik, ia 21 urte preso eman eta gero. Abokatuaren ustez, erredentzioek eta Estrasburgok Parot doktrinaren inguruan emandako epaiak eragin dute Lurdes aske uztea. Sarek erabakiarengatik bere poza azaltzarekin batera, urte guztiotan sakabanaketa politikaren eraginez Lurdesek, familiak eta lagunek jasan duten zigor erantsia salatu nahi izan du, gogoraraziz urteotan gertatu diren istripuak eta heriotzak. Sarek presoen eskubideen alde presio egiten jarraitzeko eskatu die herritarrei.



Lurdes Txurruka.

TABERNATOUR ZIRKUITOA



MARTXOKO SARIA

- 3 Egun spa eta relaxguedun hotelean.
- Jatordua Eibarko Txaltxa jatetxean.
- 50 €ko balea Monseren autozerbitzuan
- Barra bat ogi doan, hilabetez, Bolintxo okindegian



OTSIAILEKO IRABAZLEA: Mariaje Cotrina

19. KORRIKA

Lekukoa guztiona da

Martxoaren 19tik 29ra bitartean, Urepelen hasi eta Bilbora, mezu bat zabalduko du Korrikak euskararen herrian zehar: euskahalduntzearena.

“Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen” zioen Amets Arza-llusek Korrika 18ren amaieran, Baionan. “Herri hau euskaraz pentsatzen ahal dugu, edo ezin dugu pentsatu”, berretsiko genuke orain: euskahaldundu gaitzen.

Euskal Herria euskalduntzeko norberaren eta taldearen ahalmenean sinetsi eta erabil dezagun ahalmen hori. Ahaldundu gaitzen Euskararen eta euskalgintzaren egoeraz. Batu ditzagun nire, zure, haren ahalegin pertsonalak eta biderka dezagun gure ahalmena auzolanean. Egin dezagun eta eragin. Eta egin eragin.

Euskaldun eta euskaltzale guztiok osatzen dugu Euskal Herria, Euskararen Herria. Eta horixe aldarrikatu nahi dugu: guztion artean, auzolanean eta elkarlanean, lortu ahal dugula euskaraz bizikoden herria, euskalakariz osatutako herria. Herri honek auzolanean eta elkarlanean lorpen handiak egin ditu -Korrika bera, esaterako- eta iraganean bezala gaur egun ere eskuzabala eta ahaltsua dela frogatuko du. Hori da Korrikaren eta AEKren nahia.

Eta nahia ahala da. Ahalmen pertsonala eta kolektiboa: norbanakook au-



Euskaltegiko ikasle taldea.

“Dakienak erabiltzeko eta ez dakienak ikasteko ahala”

zolanekin zein erakundeekin eta instituzioekin batera elkarlanean. Dakienak erabiltzeko eta ez dakienak ikasteko ahala; ikasteko eta erabiltzeko eskubi-dea bermatzeko ahala; euskaltegiak ikaslez betetzeko ahala; euskal kultura hedatzeko eta euskal hedabideak au-

patzeko ahala; euskara taldeak laguntzeko eta euskalgintza babesteko ahala... Korrika 19k ahalmen metaketa izan nahi du, eduki ahal du. Bide berrien abiapuntu. Gutako bakoitzaren eta gu guztion nahiak eta ahalak, auzolanak eta elkarlanak eragingo baitu Euskal Herria, benetan, Euskararen Herria izatea.

AEK-ren mezua

EGITARAUA

KORRIKA KULTURALA

Martxoak 7, zapatua

- Dolmenen ibilbide gidatua antropologo eta biologoekin. Izen ematea Iratxon.

Martxoak 22, domeka

- “Eguzkiaren bidaia” emanaldia (Irrien lagunak). 17:00etan antzokian.

Martxoak 23, astelehena. KORRIKA.

- 15:00etan Korrika Txikia. Osteen, ekitaldia eta jolasak Plaza Zaharrean.
- 16.45ean Dantza-beroketa saioa Plaza Zaharrean
- 17.30ean Korrika Maltzagatik

Martxoko azken astean

- Sorraluzeko gaztiok eta euskera gazte berbetaldia, Gaztetxian.

Martxoak 26, eguena

- Euskarazko laburmetraiak. 21:00etan antzokian.

Martxoak 27, barixakua

- Tripa Festa kantu-afaria. Gaztetxean.

Martxoak 29, domekia

- Korrikaren amaiera Bilbon. Buserako izen-ematea: Pil-pileanen, 943751304.

LEKU KOTA SUNAK



**Arrate de
Albiz**

Lanerako bigarren maila behar nuelako etorri nintzen euskaltegira baina jarraitzea erabaki dut. Ohiturak erdaraz egitera eramaten nau baina azkenaldian ahalegin berezia egiten dihardut harremanetan euskaraz egiteko.



**Sonia
Benayas**

Orain arte dena gazteleraz egiten dut baina orain umeari euskaraz egiten diot, uste dudalako hobe dela jakitea. Nik erraztasun gehiago daukat gazteleraz baina lagun batzuekin orain euskaraz egiten dut, edo eurak euskaraz eta nik gazteleraz, naturaltasunez.



**Beni
Maqueda**

Hemen bizi naiz eta beharrezkoa ikusten dut jakitea. Neri norbaitek euskaraz egiten didanean amorrua ematen dit euskaraz erantzun ezin izateak. Orain astia daukat eta ikasi nahi nuke berba egiten.



**Maite
Garmendia**

Gure lagun artean euskaraz egiten dugu, bertako euskalkian, baina esamolde asko erdaraz ere esaten ditugu euskaraz zela esaten diren ez dakigulako. Eibarren ikasten dut eta han erdaraz asko egiten da, baina elgoibartarrekin eta debatarrekin euskaraz egiten dut.



**Silvia
Cabezas**

Ikasten hasi naiz hona etorri naizelako bizi izatera eta hemengo jendearekin euskaraz izan nahi dudalako harremana. Bartzelonan Euskal etxean eta hizkuntza eskolan ere hasi nintzen baina denbora gehiago eskaintzen diot.



Iñaki Iñarra

Nik dakienarekin beti euskaraz egiten dut eta ez dakienarekin erdaraz. Erabiltzen dut hiztegitxo bat harategiko berbeekin cadera beharrea mokorra eta hola. Berbalagunean ere parte hartzen dut asteburuetan.



**Aritz
Alustiza**

Ni euskaraz bizi naiz egunerokoan eta lanean ere euskaraz egiteko aukera daukat. Soraluzen euskara plana daukagu eta lanpostuetan euskara eskatzen da. Gehienek badakite eta horrela, nahi dugunok euskaraz egin dezakegu.



**Tatiana
Vargas**

Ikasketak egiteko behar dut eta hemen bizi naizelako ere ikasi nahi nuke. Gazteltxean euskaraz egiten didate baina azkarregi eta polikiago eginez gero errazago ulertuko nieke. Poliki-poliki ikasiko dut.



**Iñaki
Quintanilla**

Lau urte dira ikasten eta erabiltzen hasi nintzela. Nik orain lagun artean, alabarekin, dendara noanean, berbalagunekin... euskaraz egiten dut. Irratian eta telebistan ere euskarazko kateak jarraitzen ditut, ikasteko.



**Juanito
Unamuno**

Erdaldun askorekin harremana daukadan arren, nik lehenengo berba beti euskaraz egiten dut eta ulertzen ez badidate aldatzen naiz gaztelerara. Etxean jaso nuen euskaldun izatearen kontzientzia eta beti mantendu dut.



Markel Gil

Lagun artean euskeraz eta erderaz egiten dugu baina ni hobeto moldatzen naiz euskaraz. Institutuko euskara batzordean parte hartzen dut nahi dudalako eta gus-tatzen zaidalako jendeak euskaraz egitea.



Lupe Gomez

Oso gustora nabil euskaltegian. Erabaki dut euskaraz ikasi behar dudala eta bide horri eutsi nahi diot. Semearekin eta loibeekin egiten dut baina nagusiekin lotsa pixkat ematen dit. Berbalagunekin errazagoa da.



Nasir Raja

Pakistandarra naiz eta han arrunta da hizkuntza aniztasuna. Soraluzen nazionalitate ezberdin askotako jendea bizi da eta iruditzen zait euskara izan daitekeela guztiok komunikatzeko hizkuntza.



Xarra

Oinarrizko hezkuntza guztia gaztelaniaz jaso nuen. Nerabezaroan euskaraz alfabetatu nintzen. Donostiara Espainiar filologia ikastera joan nintzenean beste inguru batzuetako euskaldunekin topo egin nuen eta orduan ikasi nuen mundua euskaratik ulertzen.

Galdera**Mendizabalen zenbat
ogi egiten dira
egunean?**

- 1300
- 900
- 650

Oharra: lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egiten dugu.

Deitu **943 75 13 04** edo e-posta bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

Saria:

Gaztelupen bi laguentzako jatordua

Aurreko aleko erantzuna

220 euro dezimoko izan da Soraluzen egokitu den loteriako saririk potoloena.

Irabazlea

Maialen Elizburu





Elkartzen gaituen txokoa

Kalebarreneko kale kantoian
Tel. 943 75 17 89

Martxoa **TOSTADEN** hilabetea

Asteburuetan degustazio menua tapa eta errazioekin (2 pertsona)

Entsalada, fritoak eta rabak eta hegaltxoak barbakoa erara



Tostada pan tomacarekin



Tostada barazki salteatuekin eta lau gaztarekin



Tostada espinaka krema eta hirugiharrarekin

- + Etxana (Kriantza Conde Jauregi, zuri nafarra edo sagardoa)
- + Postrea

Prezioa: pertsona 1 **12,50 €**

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.
Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.
Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.
Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.
Interneten bereizten gaituen puntua.
Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.
Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.
Anima zaitez eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean.

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua



Alkarrekinen jarduera fisikoa lantzeko taldea

Maiatzaren 16a kirolaren eguna izen-datu dute. Egun horren bueltan antolatuko diren ekitaldiak prestatzeko batzen ari dira herriko zenbait talde eta norbanako.

Nondik dator Kirol eguna antolatzeko ideia?

Alkarrekin prozesuarekin batera herritarren parte-hartzea bultzatu nahian eta kirola kalera ateratzeko asmoarekin sortu zen Kirol eguna antolatzeko ideia.

Zein helburu du zehazki?

Kirola kalera ateratzea da asmoa eta herritarrak parte-hartzaile bihurtzea. Horrela, kirola egiteko ohitura dutenak eta ez dutenak ere batu nahi ditugu: ume, gazte eta heldu. Egun horretan, herri osoa kirolaren bueltan erakartzea da gure nahia eta parte-hartzea sustatzeko ekimenak antolatzen gabiltza. Egutegian, urtero, egun seinalatu bilakatu nahi dugu Kirol eguna.

Zein balore landu nahi dituzue?

Egun hau ez da lehiakortasuna lantzeko edo parte hartzaileen egoera fisikoa hobetzeko izango. Lagunartekotasuna landu nahi dugu, elkar-kidetzatza sustatu eta ondo pasatzeko jarduerak antolatu nahi ditugu.

Egitaraua aurreraterik bai?

Spinning, eskalada, herri-kirolak, jolasak eta cricket eskolak antolatzen gabiltza goizerako, eta, arratsaldean, karate ikuskizuna, gizon-probak eta kirol-egokitutako erakustaldia (beharbada, atletismoa).

Aitor Atxotegi: "Euskal Herriko kulturak lekua dauka San Frantziskon"

Aitor Atxotegik astebete egin du San Frantziskon, izan ere bertako Euskal etxearen urteurreneko jaialdira gonbidatu dute. Asteburuan pilota partiduak jokatu zituzten euskal etxeko frontoian: "batzuk 12 ordu egin zittuen kotxian gu ikustera etortzeko eta frontoia beteta zeguan, danak oso esker onekuak, gurekin euskeraz berbetan... Iparraldetik juandako jente asko dago eta euskal kultura, euskara, pelota... ikaragarri maitte dabe. Oso ondo tratatu gaittue, erregien pare". Harrituta dago euskal gastronomiak San Frantziskon duen arrakasta ikusita: "Euskal etxeko jangelak 60-70 lagunendako lekua zeukan eta egunero zeguan beteta, eguerdian eta gauian, asko estimatzen dabe hemengo janarixa".

Dena ez da lana

Turismo pixka bat egiteko astia ere izan dute: "Golden Gate zubixa, inguruko mendietatik hiri guztia ikusten da, Bay Bridge zubixa, tranbia famatua...". Esperientzia errepikatzeko gogoz etorri dira bueltan.



Atxotegi San Frantziskon, gainontzeko pelotariekin.



Zumba klaseak astelehen eta eguenetan gaztetxean

Mikel Arantzetak erritmo latinoak Moinarri hartuta Zumba klaseak eskaintzen dihardu gaztetxe azpiko lokalean. Urrian hasi ziren eta dagoeneko 16 laguneko taldea osatu dute. Astelehen eta eguenetan batzen dira, 18:30etik 20:00ra bitartean, eta hilean 20 euroko prezioa dute saioek. Aipatu du klaseak erritmo latinoetan oinarritzen direla, baina dantza afrikarrak edota hip-hop moduko estiloak ere lantzen dituztela. Plaza gutxi batzuk libre daude oraindik, eta izen-ematea saioen batera agertuta egin daiteke.



Zumba klaseak.

Jatearen plazera. bertatik bertara

ogibitartekoak eguneko menua
asteburuko kartxa razioak

[reserbak: 943 75 20 16]

JUAN MARI
ARRXINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZA MERKATU
GUGEN ULANDAKO KONPURTZAGETIKU

Errepasoa argazkitan



SANTA ESKEAN BASERRIZ BASERRI ibili dira aurten ere. Kopla onak batzuetan eta besteetan hobeak, baina denak benetakoak.



SANTA ESKEAN KALEZ KALE atera zen abesbatza sabela ondo beteta. Eskatu baino eskaini gehiago egin zuten ordea.



EUSKAL ARATOSTEAK gero eta errotuago daude herrian. Durangoko susdurluzeak, Leitzako Mielotxin eta konpainia... lagun onak dira geure tradizioa sortzen laguntzeko.



BIZIKALEK modu berezian girotu ditu aurtengo aratosteak. Izenaren jabe da herriko dendari eta tabernarien elkartea. Bejondeizuela!



OSTADARRA izan zen epaimahaikoak puntu gehien eman zion taldea, bakoitzak bere kolorea erakutsi zuen arren.



MASAITARRAK horrenbeste euri eta hotz sentitu barik izango ziren orain arte. Sari eta guzti bueltatu dira afika aldera.



Zorion agurrak



Janire Muñoz Pellitero
Martxoaren 8an, 7 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat
familixan partetik!




Iraultza Diez
Martxoaren 25ean 8 urte
Zorionak eta ondo pasatu
zure eguna!
Amatxu eta aitaxito.




Nerea Rascon
Otsailaren 22an 34 urte
Zorionak eta muxu asko
prexioxa! Etxekoen partez.



Marta Ayora
Otsailan 15ian 24 urte
Bihotz-bihotzez zorionak
printzesa! Etxekuak, nahiz ta
urrun, beti albuak.



Arkaitz Azkorbebeitia eta Naroa Zubiaurre
Martxuan 11n eta martxuan 4an
2 eta 9 urte! Zorionak eta muxu potolo bat, etxeko
guztien partetik!



Mikel Layza Albisua
Otsailan 17xan 4 urte!
Zorionak eta muxu bat
etxekuen partez.



Ione eta Miren
Martxuaren 6an eta otsailaren 28an
Zorionak! Petarda batzuk zari baina asko
maitte zaituegu!
Ama eta Aitz



Unai Calles eta Oihan Larrañaga
Otsailan 7xan eta martxoaren 4an.
Zorionak bikote eta muxu erraldoi bat,
etxeko danen partetik!

Taiotakoak eta hildakoak



Bachir Sidi-Othmane Boyah
Nayra Gimenez Ruiz



Jexux Bereziartua Irazusta
Ignacio Otal Arriola
Maria Laskurain Arizaga

Iraxgarri laburrak



Termo elektrikoa salgai.
Fagor markakoa.
100 litrokoa, ia berria.
Prezioa adosteko.
☎ Tel. **650 34 80 88**
(Elena).



Eskuzko garabia salgai,
arnesarekin.
Prezioa: 250 €.
☎ Tel. **943 75 24 80**
(Mari Karmen).

GABOLATSEKO ESTANKOA — Tabakoa eta askoz gehiago

Opari-kutxak, Reala eta Athletic-en produktuak, liburuak, prentsa altematiboa...

Fotokopia zerbitzua ere eskaintzen dugu

Gabolats, 24 Tel: 943 03 34 57 Ordutegia: 10:00-13:00 / 17:00-20:00



Iturria: Susana Larreategi.

1982ko karnabalak

Argazki hau gaztetxean, sasoi bateko Zentruan aterata dago, 1982ko aratosteetako martitzenean. Urte horretako festa-giroa berezia izan zen hainbat arrazoiengatik: Alekarre taldeak kontzejupean jo zuen, Anje Duhalde ahotsean zela eta Ibarzabal taldekidearen agurreko kontzertua zen. Dena ondo zihoan, emanaldi bukaeran mozkortuta zeuden bi lagun artean sekulako liskarra hasi zen arte. Batak besteari, eta horrek hurrengoari... izugarritzko borroka izan zen udaletxe inguruan kontzertua ikustera gerturatu zirenen artean eta elkar jo zutela dute goguan egun hori bizi izan zutenek.

Argazkian:

Atzian: Bitiki eta Blas Elizburu

Lehen ilaran: Rosa Etxeberria, Marina Guridi, Cristina Agirregomezkorta, Susana Larreategi eta Kike Regilon.



**HERMOGENES PEREZ
MARTINEZ**

I URTEURRENA 1943-2014

Etxekoak

*"Zaila izango da
onartzea ez zaitugula
berriz ikusiko baina
bizi garen artean beti
gogoratuko zaitugu"*



**JOKIN ZABALA
MORILLO**

HERIOTZAREN I. URTEURRENEAN

Sendikoak

*"Gure ondotik joan
zinen Jokin
baina beti egongo zara
gure bihotzetan"*



BENAN RODRIGUEZ
XV. URTEURRENA
2000KO OTSAILAREN 28AN HIL ZEN

Maribi

*"Atzo nire konpainian,
gaur nire oroimenean,
Betirako nire bihotzean"*



**JEXUX BEREZIARTUA
"SORALUZE"**

72 URTE ZITUELA MENDARON HIL
ZEN URTARRILAREN 31N

Soraluzeko Berbalagunak

*"Eskerrik asko eman
dizkizun tertulia
eder guztiengatik
berbalagun"*

JEXUSMARI BORROKAN ARI DA "B" DOKTOREAREN AURKA

"B" kontabilitatea, BEZik gabeko salmentakainak eta "black" txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Jexusmari ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.



Kamera
ezkutuaren
bidea

◀ Jexusmari Uberrekoa (Donpetako taxilaria)



"A" gizartea lortzeko
**ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara
www.ekonomiagardena.eus

👉 [#ekonomiagardena](https://twitter.com/ekonomiagardena)



Gipuzkoa
BERRIA



Deskontuak

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskainiko dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **otsailaren 28tik martxoaren 15era** arte.

COMERCIAL VILA
Kirolerako poltsak

4,2€

Lehen
6€

Deskontua
%30



Izena: _____

Tel: _____

ARKUPE ARROPADENDA
Konjuntua: bularretakoa + kuleroa

20,9€

Lehen
29,9€

Deskontua
%30



Izena: _____

Tel: _____

IOSU BITXIDENDA
Antonelli lepokoak

23,2€

Lehen
29€

Deskontua
%20



Izena: _____

Tel: _____

KULUNKA GOXODENDA
Zaporetako patata frijituak

1€

Lehen
1,3€

Deskontua
%23



Izena: _____

Tel: _____

Zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Abenduko zozketaren irabazlea: Ino Garrido

NIK,
HERRIAN

